

ARDIAREN ANAIARTEA MARTXAN

Duela hilabete batzuk, legazpiar batzuk biltzen hasi gara gure herrian Ardiaren Anaiartearen sortzeko helburuarekin.

Anaiarte hau osatzeko arrazoiak asko dira. Batetik, ezin uka daiteke ardia gure historiarekin zuzenki lotuta dagoen animalia denik. Mendeak dira Legazpiko baserrietan ardiak daudela eta artzainak beti izan dira Legazpiko giza paisaiako protagonista nagusienetako batzuk. Olagizonak eta artzainak izan dira ahaztutako garaietatik Legazpin elkar bizi edota elkarri mokoka aritu diren giza taldeak. Ardirik gabe ez da ulertzen eta nekez kontatu daiteke Legazpiko historia.

Bestetik, gaur egun, turismoa eta gastronomia eskutik helduta doazen garai hauetan, ezin interesgarriagoa suertatuko litzateke Legazpi bezalako herri batentzat Euskal Herriko gastronomian horrenbeste garrantzia duen ikono baten anaiartearen sortzea. Izan ere, ardia, beste produktuen artean, gaztaren elaborazioarekin modu zuzenean lotuta dago eta Legazpi Idiazabal Gaztaren Izendapenaren barruan kokatuta dago, bai geografikoki, bai profesionalki, gure herrian Idiazabal Gaztaren bi ekoizle existitzen baitira.

Azkenik, ardia gure ohituretan ere oso txertatua dago. Duela mende laurden bat baino gehiago Legazpin ospatzen baita Gipuzkoako Artzain Eguna, jende kopuru izugarria eta fidel-fidela erakartzen duen ospakizun ikusgarria.

Honi guztiari gehitzen badiogu orain arte, ez dakigun ze arrazoiarengatik, ardiaren anaiarterik inon existitzen ez zela, Legazpin proiektu hau aurrera ateratzeko arrazoiak asko direla argi eta garbi ikusten dugu. Hori dela eta, anaiarteari alta eman diogu elkarten erregistroan eta proiektuari forma emateko biltzen hasi gara.

Baina proiektu hau ez da errealitate sendo bat izango herritarren inplikazioa lortzen ez badugu. Horregatik legazpiar guztiak gonbidatzen ditugu bilera hauetan parte har dezaten. Zeu ere izan zaitezke Ardiaren Anaiartearen sortzaile eta parte-hartzaile. Animatu zaitezte datozen bileretan parte hartzera!

Ardiaren Anaiartearen sortzeko hurrengo bilera:

Data: apirilaren 25a

Tokia: Udaletxea

Ordua: 19:30

Harremanetarako:

ardiarenkofradia@gmail.com